

SARAUBE HERRIAK

Aiarako Udalaren aldizkari lauhilabetekaria #144
2024ko APIRILA / ABRIL
Revista cuatrimestral del Ayuntamiento de Ayala



SAN PRUDENTZIO JIAK
COMUNIDADES ENERGÉTICAS
AIARA DANTZA TALDEA
PREGOILARI
AITOR ASPURU
TXUPINEROA
APAGÓN COLECTIVO

IRITZIA · OPINIÓN

KORRIKA AMAITUTA, EUSKARA GOZATZEN JARRAI DEZAGUN AIARAKO UDALA

Duela ez asko Euskal Herriko errepideetara begira geunden, hunkituta, Korrikak gau ta egun euskararen alde altxatutako olatu koloretsu horri begira. Aiarara heldu zen eta harekin bat egin genuen bailarako herritarrok. Elkarrekin korri egin genuen euskarari eta euskaraz bizi ahal izateari beste bultzada emateko gogoarekin. Horixe baita Korrika, bultzada, gogoa, txute bat... anitza, koloretsua, adinik ez duena.

Bukatu da eta utzi duen apar gozo horretan, euskara gure egin behar dugu eguneroko espazio guztietara eramanez eta jaietan erabiliz. Korrikak Baionatik zabaldu zuen mezuak zioenez: "Ez da fenomeno meteorologikoa, ez gastronomia hutsa, ez borondate libreko kontsumogaia". (...) "Ez da brilli-brillizko bilgarria, ez trukerako txanpona". "Ez da beste, ez besteena". (...) "Eta batez ere, batez ere, ez da diskriminazio iturri, ez inposizio". "Izan bedi gutxiago konpetentzia, eta gehiago konpromiso, norabide, zeharlerro, harrobide".

INKESTA · ENCUESTA

Parte hartuko duzu sanprudentzioetan? ¿Vas a participar en las fiestas de Ayala?



AMAIUR

Urtero parte hartzen dut jaietan eta gozatzen dut izugarri, baina justu aurtentan oporretan joango naiz kanpora. Bidaia egingo dut eta ezin izango dut parte hartu.



JUAN

Según el trabajo que tenga me animaré a ir el sábado o el domingo. De momento, no lo sé, como digo, todo va a depender de la carga de trabajo que me toque.



AMETS

Joango gara oporretan eta ez gara egongo. Hortaz ezin izango dut parte hartu danborradan eta ez dut ikusiko Xaibor. Egia esanda, gehienetan oporretan goaz familia osoa.



NEREA

Oraindik ez dakit. Alabak txikiak zirenean, danborradan parte hartzen genuen, baina orain nagusiak direla ez. Edonola ere, oro har ez dakit zer egingo dudun egun batetik bestera.

SARAUBE ALDIZKARIA

BIDALI ZURE INFORMAZIOA · ENVÍANOS TU INFORMACIÓN :


Email: saraubealdizkaria@aiarakoudala.eus

Tel: 722 13 43 22 · Publizitatea: 688 62 53 94

AIARAKO JAIK 2024 AUTOBUS ZERBITZUA

apirilak 26 eta 27 de abril

> irteerak salidas



> irteerak salidas



DOAN EZ DA IZENA EMAN BEHAR

LIBRE NO ES NECESARIA LA INSCRIPCIÓN

Informazio gehiago/ más información: 945 39 90 13

EDITORIALA · EDITORIAL

SAN PRUDENCIO, UNAS FIESTAS PARA TODA AYALA

El último fin de semana de abril, Respaldiza acogerá las fiestas de San Prudencio. Una celebración que tiene un significado especial en Álava y que ofrece a la población de Ayala la posibilidad de confluír y encontrarse en un ambiente de celebración dentro del propio límite municipal. Encontrar estos momentos es importante para generar comunidad en un municipio cuya población se encuentra muy dispersa a lo largo y ancho de las 24 Juntas Administrativas que lo componen.

De hecho, cada concejo posee sus propias fiestas, con fechas, características y vocaciones muy distintas. Aunque todas ellas son importantes, también implican una organización y reparto de responsabilidades que hacen que los y las habitantes de las juntas, precisamente, no siempre puedan disfrutarlas al máximo.

San Prudencio, en cambio, ofrece a los y las ayalesas diseminadas en la localidad la posibilidad de socializar, conocerse y divertirse. Esto es, estrechar lazos con personas que comparten municipio, aunque sea a una distancia de kilómetros, y reconocerse como habitantes y herederos y herederas de un mismo patrimonio histórico, cultural y material. Las fiestas, por tanto, ayudan a forjar una identidad colectiva que hace sentir las raíces comunes de todas las personas que viven en Ayala.

En definitiva, estas celebraciones son una clave, junto al asociacionismo que en los últimos meses está viviendo un nuevo impulso de la mano de la ciudadanía, para articular los esfuerzos del pueblo en pos de su propio bienestar. Por eso mismo, es importante interpretarlas como algo más que una simple parranda y disfrutar de ellas con el respeto por bandera, a las mujeres, al euskera, al medioambiente y a todos y todas las vecinas que integran esta comunidad que es el pueblo de Ayala.

SAN PRUDENTZIO, JAIK AIARA OSOARENTZAT

Apirileko azken asteburuan San Prudentzio jaiak ospatuko dira Arespalditzan. Ospakizun horrek esanahi berezia du Araban, eta Aiarako herritarrei aukera ematen die batzeko eta ospakizun giroan topo egiteko, udalerrriaren barruan. Une horiek aurkitzea oso garrantzitsua da komunitatea sortzeko, are gehiago biztanleria 24 Administrazio Batzarretan zehar oso sakabanatua duen udalerrri batean.

Izan ere, kontzeju bakoitzak bere jaiak ditu, data, ezaugarri eta bokazio oso desberdinekin. Guztiak garrantzitsuak diren arren, horien antolakuntzak ekartzen du derrigorrezko arduren banaketa, eta, ondorioz, batzarretako biztanleek, hain zuzen, ez daukate beti aukera ahalik eta gehien gozatzeko.

San Prudentziok, aldiz, gizarteratzeko, elkar ezagutzeko eta ondo pasatzeko abagune paregabea ematen die herrian barreiatuta dauden aiararrei. Hau da, kilometroko distantzian bada ere, udalerrria partekatzen duten pertsonekin harremanak estutzeko egoera sortzen dute ospakizunek. Horrela, ondare material, historiko eta kultural beraren oinordeko gisa identifikatzea errazagoa da.

Jaiak, beraz, Aiaran bizi diren pertsona guztien sustrai komunak sentiaraziko dituen nortasun kolektiboa eratzen laguntzen du.

Finean, ospakizun horiek funtsezkoak dira, azken hilabeteotan herritarren eskutik bultzada berria bizitzen ari den elkartegintzarekin batera, herriak egiten dituen ahaleginak antolatzeko, bere ongizatearen alde. Horregatik, garrantzitsua da parranda soil bat baino zerbait gehiago dela ulertzea, eta haietaz gozatzeko errespetua ikur hartuta, emakumeekiko, euskararekiko, ingurumenarekiko eta Aiarako komunitatea osatzen duten bizilagun guztiekiko.



BERDINTASUNA · IGUALDAD

Fiestas de Ayala, un espacio seguro para que las mujeres también disfruten de las celebraciones



Las Fiestas de San Prudencio son un ámbito más que busca la participación activa de la mujer y su disfrute. Aunque todos los actos están abiertos a la población en su conjunto, el domingo se le ofrece especial atención a este aspecto y se invitará a mujeres que practican herri kirolak a hacer una exhibición a las 12:30.

En lo que respecta a garantizar que samprudencios sean un espacio seguro para las mujeres, como todos los años, se pondrá en marcha una campaña contra las agresiones machistas, pues las fiestas son fechas para disfrutar desde la tranquilidad y la libertad. Así, habrá carteles contra las agresiones machistas y se informará sobre los recursos existentes para hacerles frente. De igual manera, antes de que comiencen las fiestas, se convocará una reunión para explicar el protocolo de actuación en esos casos, que, en esencia, es el siguiente:

¿Qué es una agresión machista?

Son agresiones contra las mujeres, basadas en el machismo, esto es, en la creencia de que lo relacionado con lo masculino se sitúa por encima de las mujeres y se les puede decir y hacer cualquier cosa. Se distinguen entre dos tipos de agresiones.

- **Agresión de baja intensidad:** ser pesado, tocamientos, miradas

lascivas, baboseo, insultar, despreciar, empujar, chantajear, etc.

- **Agresión de alta intensidad:** golpes, palizas, agresión sexual, asesinato.

¿Cómo actuar?

En ambos casos, es fundamental escuchar a la mujer con atención y respeto, ofrecer protección, preguntar cómo está, si quiere tomar alguna medida y no dar consejos ni hacerle demasiadas preguntas. Es la mujer la que decide qué hacer.

Agresión de baja intensidad:

- Exigiremos al agresor que deje de agredir. Quitaremos la música hasta que cambie de actitud.
- Si no hace caso, se le echará del recinto.
- Si la situación empeora, llamaremos al 112 o al teléfono 900 840 111.

Agresión de alta intensidad:

- Acompañar a la mujer a un sitio seguro, no dejarla sola.
- Si quiere tomar alguna medida, llamar al 112 para pedir ayuda o al teléfono 900 840 111.
- En el Ayuntamiento, los Servicios Sociales prestan atención y dan información a las mujeres que sufren violencia machista. Servicios Sociales: 681 084 118. Servicio de Igualdad 686 587 889.

San Prudentzio Jaiak berdintasunean bizitzeko ospakizunak dira. Horregatik, hain zuzen, igandeko egitarauan arreta berezia jarri diote horri, eta, adibidez, emakumeek egingo dute herri kirolen erakustaldia. Horrez gain, Aiarako Udalak eraso matxisten kontrako kanpaina aktiboa egingo du eta, iaz bezala, protokoloa indarrean egongo da. Prozedura horrek ezberdintzen du intentsitate baxuko eta intentsitate altuko erasoen artean. Kasu bietan eskainiko zaio emakume erasotuari babesa eta entzungo zaio, gehiegi galdetu edo sakatu gabe, berak erabaki dezan zer egin. Intentsitate baxuko gertakarietan musika kenduko da, erasotzaileak utz dezan bere jarduna eta, ez badu egiten, kaleratuko dute. 112 eta 900 840 111 telefonoetara dei daiteke. Intentsitate altuko kasuetan, emakumea ez da bakarrik egon behar, une oro lagunduta baizik, eta aurreko telefono zenbakiak ez ezik, badaude ere 681 084 118 (Gizarte Zerbitzuak) eta 686 587 889 (Berdintasun Zerbitzua).

EUSKARA

Euskara Plan berria abian



Aiarako Udalaren barne funtzionamenduan eta herritarrekiko harremanetan euskararen erabilera normalizatzea helburu, bere Euskara Plana eguneratzeko prozesua abiatu du tokiko erakundeak azken asteotan, Elhuyar enpresaren gidaritzapean eta Udaleko zenbait langile, ordezkari politiko eta teknikariren parte hartzearekin.

Planak bost urterako onartzen dituzte udal osoko bilkurek, eta diagnostikoa, estrategia eta ebaluaziorako irizpideak jasotzen dituzte barruan. Helburuak ez ezik, zer emaitza espero den ere zehazten dute, beraz, eta hori nola neurtu barne biltzen dute. Alde horretatik, plan errealista osatu beharra dago, egingarria izango dena epe ertainean, baina, aldi berean, erronka ere badena erakundearentzat.

Herritarrek, izan ere, bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko eskubidea dute, eta Administrazioak, eskumen hori bermatzeko derrigortasuna. Orain arteko lan-saioak euskararen normalizazio-prozesua ulertzeko ikuspegia zabaltzean zentratu dira, egunerokoan bizi den hizkuntza-errealitatearen irakurketa kritikoa bultzatuz eta euskara sustatuz diskurtsoak josteko ideiak partekatuz.

Aiaran jai euskaldunak



Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak eta Euskara Teknikariren Mahaiak eskualdeko jaietan euskara sustatzeko kanpaina prestatu dute, eta Aiarako jaietan jarriko da martxan lehenengo aldiz. Hala, tokiko udaletxean aurkeztuko dute, apirilaren 25ean, goizeko 11:00etan, txupinazoaren bezperan, hain zuzen.

Kanpaina zabala da eta atal bat baino gehiago barne hartzen ditu. Komunikazioaren aldetik, eragin bisual indartsua lortzeko, diseinu bateratua erabiliko du herri guztietako edalontzi, pankarta, prezio-taula, pegatina eta abarren bitartez. Bestalde, txosnetarako hizkuntza irizpide batzuk zehaztuko ditu, euskarak izan beharreko tokia bermatzeko, musikan, barra-zerbitzuan eta megafonian, esaterako. Ildo beretik, udalek euskara sustatzeko gomendioak bidaliko dizkiete ostalariei, eta jaietako ekitaldi guztietan hizlari elebidunak egon daitezen laguntza eskainiko dute.

Azkenik, Euskalgintza Kontseiluak atera berri duen Euskararen Semaforoa erabiliz etiketatuko dira jaietako egitarauko ekitaldiak, haietako bakoitzean euskarak zer presentzia izango duen jakin dezaten herritarrek.

Laburbiraren edizio berria



Laburbira egitasmoa data finkoa bilakatu da Aiaran eta aurten ez da salbuespena izango. Izan ere, maiatzaren 3an euskarazko film laburren proiektzioa egingo dute berriro Aiarako udalbatza aretoan, 19:00etan, hain zuzen. Hautatutako zortzi pelikulak honako hauek dira: *Babesa*, *Dena asmatuta dago*, *Katalinaren zoria*, *Erro*, *Mundu berri bat*, *Zirrara*, *Talkak* eta *Betizu buru*. Generoak ezberdinak dira, fikzioa gailentzen bada ere, badago dokumental bat eta film animatua. Aniztasun horren isla da oso bestelako gaiak egongo direla: gerra, apokalipsi zombia, prostituzioa, bikote harremanak, gazte baten buruhaustea bere gorputzarekin... eta guztiak izango dira euskaraz, euskal zinemagileen esku. Horietako bat, gainera, ingurukoa, Ane Cuesta arrankudiagarra, zehazki.

2024ko edizioa 37 herritan egongo da eta ekimenaren helburuak ez dira aldatu. Lehenik eta behin, nola ez, zinema zaletasuna euskaraz sustatzea, ahalik eta leku gehienetan egitea -herri txiki zein handitan- eta zinemagileekin harremana bultzatzea. Hain zuzen, Arespalditzan proiektatuko den pelikula baten zuzendariak parte hartuko du eta emanaldiaren ostean solasaldia egingo du ideiak eta iritzia trukatzeko.

MENOIO

Menoioiko San Markos Jaiak



Menoioiko administrazio batzarrak San Markosen ohorezko jaiak ospatuko ditu apirilaren 24an, asteazkena, eta 25ean, osteguna. Horretarako, egitarau xumea -aintzat hartuta lanegunak direla biak-, baina eraginkorra prestatu dute, herritarrek aitzakia izan dezaten batzeko eta aisialdia partekatzeko.

Gauzak horrela, 24an 21:30ean hasiko dira jarduerak mokadu batekin eta 22:00etan txupinazoa izango da. Su artifizialekin ospatuko dute. Hurrengo egunean, aldiz, ekintzak egunez antolatuko dituzte. Zehazki, 12:30ean meza santuaren uea helduko da eta, ordu erdi beranduago, luntxa eskainiko dute. Amaitzeko, arkumearen zozketa egingo dute, urtero bezala. Ekintza guztiak alaitzeko lizaldeko trikiti doinuak baliatuko dituzte.

Menoyo celebrará sus fiestas en honor a San Marcos el 24 y 25 de abril, esto es, miércoles y jueves. El primer día los festejos arrancarán a las 21:30 con un pisolabis y después tendrá lugar el txupinazo, con lanzamiento de fuegos artificiales. Al día siguiente las actividades comenzarán a las 12:30 con una misa y después llegará el momento de compartir un lunch. Finalmente, llevarán a cabo el habitual sorteo de un cordero.

LUIAONDO

Apagón colectivo por la reducción del consumo energético



El 22 de abril, lunes, a las 21:00, se ha convocado un apagón colectivo en la localidad. Será de una duración de 15 minutos y la intención es que se lleve a cabo no solo en Ayala, sino también en Amurrio y Laudio simultáneamente. De hecho, la idea es que el alumnado de los tres municipios se concentre, junto a sus familias, para reivindicar la necesidad de reducir el consumo energético. Igualmente, procederán a leer un manifiesto cuyo propósito es hacer frente al cambio climático.


En el caso de Ayala, la cita para que la ciudadanía se concentre tendrá lugar en la parte delantera del Centro Social Otueta. De ese modo, las personas que estén interesadas en esta iniciativa pueden optar por sumarse desde sus domicilios o bien contribuir con su presencia en Luiaondo.

Hay que apuntar que, si bien este llamamiento tiene un marcado carácter local y cuenta con el apoyo de la Cuadrilla de Ayala, existen otras instituciones promotoras, entre ellas el propio Gobierno Vasco, la red de municipios sostenibles Udal Sarea 2030 y el Departamento de Educación. De hecho, esta actividad se enmarca en el programa Agenda 2030 de la Ikastola Etxaurren, de igual manera que el Día del Árbol, celebrado en marzo.

Datorren apirilaren 22an, astelehena, 21:00etan, argi itzalketa kolektiboa egiteko deia egongo da. Guztira, 15 minutukoa izango da eta asmoa da aldi berean gauzatzea Aiaran, Laudion eta Amurrian. Hain zuzen, une horretan hiru herrietako ikasleak eta familiak batuko dira energia kontsumoaren murrizketaren alde egiteko. Halaber, klima aldetari aurre egiteko manifestu bat irakurriko dute. Aiarako kasuan, argi itzalketa Luiaondon izango da, Otueta Gizarte Etxearen aurreko aldean. Ekimen irekia izango da eta herritarrek bat egin dezakete, bai bertaratuta edo haien etxeetatik. Ekintzaren sustatzaileak ez dira bakarrik tokiko udalak. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak, Udal Sarea 2030 udal jasangarrien sareak, Aiarako Kuadrillak eta Hezkuntza Sailak bultzatu dute. Hain zuzen, Etxaurren Ikastolako 2030 Agendaren barruan antolatu dute deialdia. Martxoan Zuhaitz Eguna ospatu zuten programa hori jarraiki.

ETXAURREN IKASTOLA

Klimaren aldeko jolastokia



Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak hainbat proiektu aurrera eramateko dirulaguntza eman dio Aiarako Udalari, besteak beste, Etxaurren ikastolako jolastokiaren birnaturalizazioa gauzatzeko 43.225 euro bideratuko ditu. Diruz lagunduko dituen beste proiektuen artean herriko klima eta energia plangintza prestatzea dago.

Gogoratu beharra dago 2021ean parte hartze prozesua abiatu zutela Aiarako ikastetxeko hezkuntza komunitateko kideek eta horretan berdintasunaren eta birnaturalizazioaren aldeko apustua egin zutela. Proiektu inklusibo horrek, dena den, moldaketak beharko ditu, handiagoa izango baita. Hortaz, tokiko hezkuntza eragileentzat hausnarketarako tartea irekiko da.

El Departamento de Medio Ambiente del Gobierno Vasco ha concedido una subvención de 43.225 euros al Ayuntamiento de Ayala para que acometa la renaturalización del patio de la Ikastola Etxaurren. Los ejes de ese nuevo espacio de recreo fueron marcados en el proceso participativo que tuvo lugar en 2021, pero ahora la comunidad educativa debe afrontar un período de reflexión para adaptar los plazos de ejecución.

AIARA

Protagonistas locales de las Fiestas de San Prudencio



Las Fiestas de Ayala van a tener más de un nombre propio local destacado. Para empezar, si bien el pregón va a correr a cargo de Aiara Dantza Taldea -afincado en Amurrio pero también con integrantes locales-, el chupinazo será responsabilidad de Aitor Aspuru. Este joven de Etxegoien es, de hecho, uno de los dantzaris en activo que más tiempo lleva en el grupo y también es trikitilari y txalapartari. De su absoluta devoción por la cultura vasca le ha surgido la oportunidad de colaborar con músicos de la talla de Kepa Junkera y Korrontzi. Quienes participan en las fiestas del municipio saben que no es difícil asistir a celebraciones en las que Aitor Aspuru participa bien bailando o tocando el panderero o la trikiti, con lo cual, recibirá un merecido reconocimiento a su actividad cultural.

Además, hay que citar a las ganadoras del concurso del cartel de fiestas. En la categoría de menores de 10 años, la vencedora ha sido Aiara Fuentes. Entre quienes tienen entre 10 y 14 años, en cambio, el trabajo elegido ha sido *Aiarako Jaiak imajinaezinak dira, bizi behar dira*, de Amaia Iglesias de la Torre. Por último, entre los y las participantes mayores de 14 años, la obra premiada es *Jaiak altxatxera goaz*, de Eneritz Ortiz Angulo. Felicidades, por tanto, a estos ayaleses y ayalesas por su aportación a las celebraciones que tendrán lugar este año.

Aiarako Jaiak tokiko herritarren parte hartze nabarmena izango dute aurten ere. Hasteko, Aiara Dantza Taldeak pregoia irakurriko badu ere, Aitor Aspuru Etxegoien herritarrari egokituko zaio txupinazoa jaurtitzeko ardura. Gazte hau pregoielarien artean dagoen dantzari aktibo beteranoetako da eta, horrez gain, panderojole, trikitilari eta txalapartaria ere bada. Hain zuzen, Kepa Junkera edota Korrontzi musikari famatuekin elkarlanean aritu da behin baino gehiagotan. Berez, herriko jai ugarietan parte hartzen dutenek ondo baino hobeto dakite Aitor Aspuru trikiti edo panderoa jotzen dituela horietan, baita dantzatu ere. Horrez gain, Aiarako Jaien kartel lehiaketako irabazleek ere ekarpena egin diete ospakizunei. Categoría ezberdinetako irabazleak Aiara Fuentes, Amaia Iglesias de la Torre eta Eneritz Ortiz Angulo izan dira. Zorionak guztiei aitortzagatik eta baita egin dituzten ekarpenengatik ere.

JENDARTEA · SOCIEDAD

COMUNIDADES ENERGÉTICAS EN AYALA

TRES JUNTAS ADMINISTRATIVAS HAN COMENZADO A DAR PASOS PARA ESTABLECERSE COMO COMUNIDADES ENERGÉTICAS, NO SOLO PARA FOMENTAR EL AUTOCONSUMO Y CONTRIBUIR A COMBATIR EL CAMBIO CLIMÁTICO, SINO TAMBIÉN PARA MOSTRAR ALTERNATIVAS A LOS MACROPROYECTOS.



El inmenso debate en torno al cambio climático y el agotamiento de los recursos fósiles está teniendo repercusiones directas en la vida del municipio de Ayala. Por un lado, por la proliferación de macroproyectos energéticos -eólicos y fotovoltaicos- que han despertado el rechazo de la inmensa mayoría de las Juntas Administrativas. Por otro, en una clave diametralmente opuesta en muchos aspectos, por la aparición de iniciativas populares para la creación de comunidades energéticas.

De hecho, en Sojo, Zuaza y Murga han iniciado el camino para establecer esta clase de figuras que fomentan el autoconsumo y devuelven a los propios pueblos la capacidad de decidir sobre su soberanía ecológica y energética, en la medida en que son los concejos

Autokontsumoa, kooperatibismoa eta energia subiranotasuna sustatzen dute komunitate energetikoek administrazio batzarretan, eurek erabakitzen baitute zein azpiegitura ezarri.

quienes deliberan acerca del tamaño de la infraestructura y de su ubicación.

En esencia, las comunidades energéticas son la unión de vecinos y vecinas, así como de la propia Junta Administrativa, en una cooperativa que promociona la instalación de placas fotovoltaicas en

Soxon, Zuhatzan eta Murgan komunitate energetikoak sustatzen ari dira, hau da, autokontsumoa bultzatzen duten eta herriei beren subiranotasun ekologiko eta energetikoari buruz erabakitze gaitasuna itzultzen dieten figura mota horiek, kontzejuak baitira azpiegituraren tamainaz eta kokapenez deliberatzen dutenak.

Funtsean, komunitate energetikoak auzotarren batasuna dira, bai eta Administrazio Batzarrena berarena ere, lursail edo jabego komunaletan plaka fotovoltaikoak jartzea bultzatzen duen kooperatiba. Soxoren kasuan, adibidez, zentro sozialaren teilatuan eta

En Sojo, Zuaza y Murga las iniciativas se encuentran en distintas fases de desarrollo, aunque en Zuaza creen que la comunidad energética puede dar pasos irreversibles en escasos meses

terrenos o propiedades comunales. En Sojo, por poner un ejemplo, en el tejado del centro social y la bolera. En estas cooperativas promovidas por capital privado, nadie puede poseer más del 50% de la sociedad y queda en manos de los y las participantes establecer los coeficientes de reparto de la energía. Sin abandonar Sojo, son once las unidades de convivencia que se han agrupado, otras dieciocho en Zuaza y catorce en Murga, aunque cada proyecto está en una fase distinta.

El papel pionero correspondió en Ayala a Sojo, que ya en 2022 se puso manos a la obra en la tarea de fundar su propia comunidad energética. Después de acordarlo en concejo, socializar la iniciativa con todas las personas del pueblo y recabar adhesiones, recibieron el informe en que se especificaba cuáles eran las necesidades del pueblo y cómo satisfacerlas mediante la instalación de placas fotovoltaicas. "En base a esos informes técnicos, las viviendas consumidoras ahorraríamos 9.000 euros al año, lo cual es una cifra considerable. Durante este proceso hemos concretado la distribución de los porcentajes de consumo, ya que la energía la tendremos que compartir. En principio, el reparto será proporcional al consumo de cada cual. Igualmente, la aportación en los costes será proporcional a ese consumo",

informa Koldo Mendioroz, uno de los impulsores. Pese a haber dado pasos de gigantes en la constitución de la comunidad, como por ejemplo entrar a formar parte de la cooperativa Red de Comunidades Energéticas, en Sojo se han encontrado con varios obstáculos que están ralentizando su puesta en marcha. El principal es el factor económico, ya que la Junta Administrativa no cuenta con grandes ingresos y depende de subvenciones. En vista de que la que otorga el EVE no será suficiente, se han decantado por atraer la financiación del programa Erein y están a la espera de la respuesta a su solicitud. El propio Mendioroz destaca que el proyecto, además de contribuir a la preservación del medioambiente, ayuda a generar tejido social en el pueblo: "ese es el camino a seguir".

En Zuaza, pese a iniciar el proceso en octubre de 2023, esperan que en unos meses se den pasos decisivos hacia la construcción de sus infraestructuras fotovoltaicas en el tejado del centro social y la antigua escuela del barrio Magdalena. Por de pronto, ya cuentan con la respuesta afirmativa del EVE a su petición de financiación y la cooperativa está compuesta por la propia junta y diecisiete vecinos y vecinas, aunque dos quedan fuera de la comunidad energética ya que el espacio entre la fuente productiva y el hogar debe ser inferior a dos kilómetros. En cualquier caso, en Zuaza esperan que pronto se adopte la normativa de otros países, que extiende esa distancia hasta los cinco kilómetros, y así incluir a todas las personas que participan. De las tres juntas que se han embarcado en este proyecto, la que se encuentra en fase embrionaria es la de Murga, ya que aunque hay 14 personas dispuestas a participar como socias, aún no han podido concretar un lugar en el que instalar las placas de generación.

bolatokian. Kapital pribatuak sustatutako kooperatiba horietan, inork ezin du sozietatearen %50 baino gehiago eduki, eta parte-hartzaileen esku geratzen da ekoiztiko energia banatzeko koefizienteak ezartzea. Soxo utzi gabe, hamaika bizikidetzta-unitate elkartu dira, beste hemezortzi Zuhatzan eta hamalau Murgan, baina proiektu bakoitza garapen-fase desberdinean dago.

Rol aitzindaria Soxori egokitu zitzaion Aiaran, eta 2022an bere energia-komunitatea sortzeko lanari ekin zion. Kontzejuan adostu, ekimena herriko pertsona guztiakin sozializatu eta atxikimenduak bildu ondoren, beharrak zeintzuk ziren eta horiek plaka fotovoltaikoak instalatuz nola bete zehazten zuen txostena jaso zuten. Dena den, oztopo batzuk aurkitu dituzte, eta horiek mantsotzen ari dira bultzada. Faktore nagusia ekonomikoa da, Administrazio Batzarrak ez baitu diru-sarrera handirik eta dirulaguntzen mende baitago. Erein programaren finantzaketa erakartzearen alde egin dute, eta eskaeraren erantzunaren zain daude. Zuhatzan, prozesua 2023ko urrian hasi bazen ere, hilabete batzuen buruan Magdalena auzoko gizarte-zentroaren eta eskola zaharraren teilatuan azpiegitura fotovoltaikoak eraikitzekeko urrats erabakigarriak ematea espero dute. EEEn baiezko erantzuna jaso dute finantzaketa-eskaeraren aurrean, eta kooperatiba batzarrak berak eta hamazazpi bizilagunek osatzen dute. Murgan, momentuz, hamalau bizilagun batu dira proiektuan, baina oraindik ere tokia bilatzen ari dira plakak instalatzeko.

KULTURA · CULTURA

Feria de San Isidro




La Feria de San Isidro, dedicada al sector primario y con mucho arraigo en Ayala, tendrá lugar el 15 de mayo en Respaldiza. Las personas interesadas en participar en ella con sus productos tienen hasta el 25 de abril para presentar la solicitud correspondiente en las oficinas municipales o en la sede electrónica -www.aiarakoudala.eus-. Como en otras ediciones, cada persona podrá acceder a dos puestos que el propio Ayuntamiento facilitará y para las 10:00 deberán estar preparados. En ningún caso se autorizará la instalación de puestos propios.

Frente a la eventualidad de que el número de solicitudes rebasa el de puestos disponibles, el 2 de mayo en el propio consistorio a las 09:00 se llevará a cabo un sorteo para decidir quiénes participarán.

Maiatzaren 15ean egingo dute Arespalditzan San Isidro Azoka. Lehen sektoreari lotutako jai hau oso sustraituta dago Aiaran eta bertan parte hartu nahi duten ekoizleek apirilaren 25era arte izango dute tartea izena emateko. Eskaera orria udal bulegoetan edo webgunean -www.aiarakoudala.eus- laga behar da eta eskatzaileen kopuruak postuena gaintuz gero, maiatzaren 2an egingo dute zozketa Aiarako Udaletxean 09:00etan, tokiak banatzeko.

INGURUMENA · MEDIOAMBIENTE

Baso kudeaketa berria klima aldaketari aurre egiteko



Udalak klima-aldaketari eta horri aurre egiteko moduei buruz duen kezka barruan, Aiarako udalerrian baso-ustiapena dibertsifikatzeko moduari buruzko hausnarketa jarri du abian. Horretarako, Tantai kooperatibak martxoan eman zuen hitzaldia izanda egindako lehenengo pausoetako bat. Kooperatibaren aburuz, lursail publikoen errentagarritasuna mantentzeko moduetako bat hostozabalak landatzearen aldeko apustua egitea izango litzateke, neurri horri esker basoetan ura hobeto xurgatuko litzatekelako eta bioaniztasuna bere espazioan mantenduko lukelako.

Era berean, Tantaik baso-soilketaren praktika arbuia du, horrek lurzoruen pobretze-efektua duelako. Halaber, kooperatibak monolaborantzaren eredia baztertzen du, zuhaitz-gaixotasunen hedapena errazten duelako. Jaso beharrezko trebakuntza garrantzitsu gisa, Tantaik nabamendu zuen entresaka egin aurretik ebaki behar diren zuhaitzak seinatzea ezinbestekoa dela. Horrez gain, moztu ondoren egurra ateratzeko moduaren inportantzia ere aipatu zuten.

Egitasmo horri erantzunda, Administrazio Batzarren batek bere basoen kudeaketa integrala egiteko interesa agertu du jadanik.

Debido a la preocupación del Ayuntamiento sobre el cambio climático y las formas de hacerle frente, Ayala ha iniciado una reflexión acerca de la explotación forestal en el municipio. Uno de los primeros pasos ha sido la charla que la cooperativa Tantai dio el pasado mes de marzo. En su opinión, una de las formas de mantener la rentabilidad del bosque sería la apuesta hacia la plantación de frondosas, que mejoraría la absorción de agua en los bosques y mantendría la biodiversidad en su espacio. Igualmente, rechazan la práctica de la matarrasa, debido al efecto de empobrecimiento en los suelos. También el monocultivo, porque favorece la expansión de enfermedades arbóreas. Por otro lado, subrayaron como formación importante a realizar el señalamiento de los árboles que hay que cortar antes de una entresaca y la forma de sacar la madera tras su corte. Alguna Junta Administrativa ha mostrado ya su interés por realizar una gestión integral de sus propios bosques.

KULTURA · CULTURA

Autobús para acudir a fiestas



Un año más, el Ayuntamiento de Ayala organizará un autobús gratuito el 26 y 27 de abril para quienes quieran acercarse a Respaldiza durante las Fiestas de San Prudencio. Será absolutamente gratuito y no será necesaria la inscripción previa. Constará de tres recorridos. El primero partirá de Artziniega a las 20:30 y recorrerá Llanteno (Satia), Menagarai, e Ibaguen, para acabar en Respaldiza. El segundo hará su salida de Laudio a las 21:15, parará en Luiaondo y Murga y terminará en Respaldiza. El último trayecto tendrá su origen en Amurrio y acudirá directamente a las fiestas a las 22:00. Los recorridos de vuelta harán las mismas paradas en sentido inverso a las 04:00, 05:30 y 04:45, respectivamente. Se puede solicitar más información en el teléfono 945 39 90 13.

Aiarako Udalak doako autobus zerbitzua antolatuko du apirilaren 26an eta 27an San Prudentzio Jaietara joateko, eta doakoa izango da. Hiru ibilbide egongo dira: Artziniega-Lanteno-Menagari-Ibaguen-Arespalditza, Laudio-Luiaondo-Arespalditza eta Amurrio-Arespalditza. 20:30ean, 21:15ean eta 22:00etan abiatuko dira, hurrenez hurren. Halaber, kontrako ibilbidea egingo dute gaueko ordu txikietan herritarrak etxera itzul daitezzen; 04:00etan, 05:30ean eta 04:45ean.

KULTURA · CULTURA

Actividades para mayores de 60



El Ayuntamiento de Ayala está inmerso en la preparación de dos actividades para el segmento de población más veterano de la localidad. Así, el 27 de abril se celebrará en las Fiestas de Ayala el Día de las Personas Mayores, lo que incluye una comida en Ikastola Etxaurren. Quienes superen la edad de 65 años y tengan interés en participar, pueden inscribirse en las oficinas municipales y recoger sus invitaciones. Para ello hay que acudir a Respaldiza de lunes a viernes de 09:00 a 14:00 o a Luiaondo los lunes de 09:00 a 12:00 y los miércoles de 12:00 a 15:00. El último día para ello será el 19 de abril.

Asimismo, de cara al 30 de mayo, el consistorio ha organizado una excursión a a Castejón, donde se encuentra la Bodega del Marqués de Montecierzo -incluye degustación- y a Calahorra, tanto al Museo de las Verduras como al mercado. La salida incluye tanto comida como música y baile. El plazo para apuntarse acabará el 26 de abril y, si es una pareja la que se inscribe, al menos una de las personas deberá tener 60 años. Las plazas son limitadas y, además de respetar el orden de inscripción, quienes ostenten el padrón en Ayala dispondrán de preferencia. El precio de la actividad es de 25 euros y se deberá abonar en las oficinas municipales al formalizar la inscripción, momento en el que se concretarán los horarios. No se devolverá el importe.

KULTURA · CULTURA

Apirilaren 19an jarduera bikoitza



Luiaondok bi egitarau hartuko ditu apirilaren 19an. Alde batetik, buru osasunari buruzko hitzaldia eskainiko dute Otueta Gizarte Etxean. Zehazki, 19:00etan Joana Diaz de Alda psikologoak azalduko du zer den antsietatea eta nola tratatu daitekeen.

Bestalde, Liburuaren Eguna dela eta, Aiara Kultura ekimenak arratsalde osoko ekintzak antolatuko ditu Luiaondoko Ludotekan, kasu honetan umeei bideratuta. Egitaraua 18:30ean hasiko da Ane Gebararen *Ze polita zaren* ipuin kontaketa saioarekin. Ordubet beranduago orri markatzaileak egiteko eskulan tailerraren uea helduko da eta, amaitzeko, giro onean guztien artean hitz egiteko eta arratsaldeari agur esateko, mokadua egongo da.

Luiaondo acogerá dos programaciones distintas el 19 de abril. A las 17:00 en el Centro Social Otueta tendrá lugar una charla sobre la ansiedad y acerca de cómo tratarla con la psicóloga Joana Diaz de Alda. A las 18:30 en la Ludoteca, con motivo del Día del Libro, Ane Gebara ofrecerá una sesión de cuentacuentos: *Ze polita zaren*. A las 19:30 disfrutarán de un taller para crear marcapáginas, y para finalizar, los y las asistentes tendrán un picoteo.

ELKARRIZKETA · ENTREVISTA



MARINA ITURRATE

(AIARA DANTZA TALDEKO KIDEA)

AIARA DANTZA TALDEA IZANGO DA SAN PRUDENTZIO JAIETAKO PREGOILARIA. AMURRION KOKATUTA BADAGO ERE, TALDEAK ERROAK DITU AIARAN ETA 40 URTE BETE DITU AURTEN. HERRIKO JAIEN PREGOIA IRAKURTZEA PROPOSAMEN BOROBILA IZAN DA EUSKAL DANTZEN ELKARTEARENTZAT ETA 2024AN ERE MODU AKTIBOAN PARTE HARTUKO DUTE HERRIKO OSPAKIZUNETAN.

¿Cómo habéis recibido la propuesta para leer el pregón de fiestas de Ayala?

Ha sido una sorpresa enorme, la verdad. Es cierto que tratándose del 40 aniversario de Aiar Dantza Taldea, nos ha venido muy bien y con ello hemos redondeado la celebración.

Aiara Dantza Taldea Amurriokoa da, baina harreman estua duzue Aiararekin, ezta?

Egia da egoitza Amurrion dugula, baina Aiaran ditugu erroak. Izan ere, Larrinbe eta Aiarako guraso batzuek sustatu zuten dantza taldea, horren falta sumatu ostean Dantza Lagunak desagertzean. Berez, hasierako irakasle ia

guztiak aiarrak ziren eta lehenengo dantzaldia, hain zuzen, Zuhatzan izan zen 1984an.

¿Qué habéis preparado para festejar este 40 aniversario?

Más o menos todos los meses organizamos algo. En enero preparamos una exposición en la Casona, en Amurrio. En febrero participamos en los carnavales con una kalejira, en marzo bailamos junto a Korrontzi, en abril tenemos el pregón y, por supuesto, bailaremos en Respaldiza, en mayo celebraremos la Euskal Jaia... Ese será seguramente el acto más concurrido que llevemos a cabo, ya que vamos a tratar de reunir a todas las personas que han participado

"Egia da egoitza Amurrion dugula, baina taldearen erroak Aiara daude".

en el grupo. Bailaremos, como es costumbre, en la plaza Juan de Urrutia, pero es de suponer que congreguemos a más personas.

Zenbat dantzarik parte hartu dute taldean urte hauetan guztietan?

Ez dakit, baina urtero mantentzen ditugu 150 lagun. 200 izatera heldu gara. Aiaraldeko jende pilo pasa da taldetik, bereziki, Aiara. Aurtengo Euskal Jaian dantzari ohiak biltzeko sekulako lana egin dugu. Ahoz aho, sare sozialen bidez, gure webgunean... Bide anitzak baliatu ditugu. Talde polita lortu dugu horrela eta jende askok eman du izena, bereziki azken urteetan egondakoak. Beste belaunaldiko dantzariak mantentzen dute harremana eta euren artean ere joan dira elkartzeko. Pozik gaude erantzunarekin.

Sois un grupo muy activo en la fiestas de Ayala.

Aunque ahora hay menos dantzaris de Ayala que en otras épocas, siempre hemos bailado en los pueblos que conforman el municipio. En las fiestas de algunas juntas administrativas estamos prácticamente cada año. Por ejemplo, en el 25 aniversario bailamos en los 24 pueblos de Ayala. Es el lugar donde más bailamos: en Retes, Beotegi, Menagarai, Izoria...

"En las celebraciones del 25 aniversario de Aiara Dantza Taldea bailamos en los 24 pueblos de Ayala."

Aiara Dantza Taldean parte hartzeko modu ezberdinak daude?

Bai, hasteko, dantzari moduan. Baditugu umeen lauzpabost talde zein helduen beste bi. Gero eta heldu gehiago ari dira animatzen. Dena den, gurasoen laguntza ere asko eskertzen dugu. Euskal Jaian edo horrelako egun berezietan euren lana oso eskertzekoa da.

¿Por qué se decide la gente a participar en Aiara Dantza Taldea?

Creo que lo más bonito es que se crean grupos con personas de distintas edades y disfrutan mucho al bailar, tanto en los ensayos como en la plaza. Además, no es solo bailar, muchas veces organizamos cenas para generar ese sentimiento de grupo. Los y las más pequeñas van de campamentos o participan en salidas. En estos últimos años hemos ido al PIN, por ejemplo, para que tengan buenos recuerdos unidos a Aiara Dantza Taldea. Yo creo que ese sentimiento de pertenencia es importante porque, si estás a gusto en un sitio, es más fácil mantenerse.

"Saiatzengarata desentimendua sustatzen. Izan ere, errazagoa da jarraitzea gustura zauden toki batean. Afariak antolatzen ditugu gure artean eta umeentzako irteerak egin ditugu, oroitzapen onak sortzeko".

Euskal kultura oso presente dago zuen jardueran.

Bai, adibidez, urtarrilean egindako erakusketan Euskal Herriko ia txoko guztietako jantziak bildu genituen. Guk egin ditugu eta hemen ditugu, urtez urte toki batekoa edo bestekoa erabili dugu eta. Nahi genuen jendeak ezagutzea herrialde ezberdinetako jantziak, bere historia. Halaber, nahi genuen, herriak ikustea zer nolako ondarea daukagun. Izan ere, dantza taldeak material pilo sortu du eta hori ere garrantzitsua da bestelako taldeekin harremana izateko. Esaterako, Aretako Itxarkundia Dantza Taldearekin Arabako eta Euskal Herriko Dantzari Egunetara jo dugu, baina taldeok ez ditugunez jantzi guztiak -ezta guk ere-, materialak trukatzeko ditugu.

¿Habéis pensado ya qué vais a decir en el pregón?

No lo hemos terminado, pero tenemos claro que vamos a hablar de la relación que Aiara Dantza Taldea tiene con el pueblo de Ayala. Esto nos está valiendo, además, para aprender mucho de nuestra propia historia.

BOTIKAK · FARMACIAS

APIRILEKO GUARDIAK GUARDIAS ABRIL

| | |
|--------------|-----------------|
| 1 FERNANDEZ | 17 FERNANDEZ |
| 2 HERNANDEZ | 18 IBARROLA |
| 3 PEREDA | 19-21 PEREZ |
| 4 CACERES | 22 HERNANDEZ |
| 5-7 YARZA | 23 PEREDA |
| 8 FERNANDEZ | 24 CACERES |
| 9 IBARROLA | 25 YARZA |
| 10 PEREZ | 26-28 FERNANDEZ |
| 11 HERNANDEZ | 29 IBARROLA |
| 12-14 PEREDA | 30 PEREZ |
| 15 CACERES | |
| 16 YARZA | |

MAIATZEKO GUARDIAK GUARDIAS MAYO

| | |
|-----------------|----------------|
| 1 HERNANDEZ | 17-19 IBARROLA |
| 2 PEREDA | 20 PEREZ |
| 3-5 CACERES | 21 HERNANDEZ |
| 6 YARZA | 22 PEREDA |
| 7 FERNANDEZ | 23 CACERES |
| 8 CACERES | 24-26 YARZA |
| 9 PEREZ | 27 FERNANDEZ |
| 10-12 HERNANDEZ | 28 IBARROLA |
| 13 PEREDA | 29 PEREZ |
| 14 CACERES | 30 HERNANDEZ |
| 15 YARZA | 31 PEREDA |
| 16 FERNANDEZ | |

EKAINEN GUARDIAK GUARDIAS JUNIO

| | |
|-----------------|-----------------|
| 1-2 PEREDA | 17 IBARROLA |
| 3 CACERES | 18 PEREZ |
| 4 YARZA | 19 HERNANDEZ |
| 5 FERNANDEZ | 20 PEREDA |
| 6 IBARROLA | 21-23 CACERES |
| 7-9 PEREZ | 24 YARZA |
| 10 HERNANDEZ | 25 FERNANDEZ |
| 11 PEREDA | 26 IBARROLA |
| 12 CACERES | 27 PEREZ |
| 13 YARZA | 28-30 HERNANDEZ |
| 14-16 FERNANDEZ | |

UZTAILEKO GUARDIAK GUARDIAS JULIO

| | |
|--------------|-----------------|
| 1 PEREDA | 17 PEREZ |
| 2 CACERES | 18 HERNANDEZ |
| 3 YARZA | 19-21 PEREDA |
| 4 FERNANDEZ | 22 IBARROLA |
| 5-7 IBARROLA | 23 YARZA |
| 8 PEREZ | 24 PEREZ |
| 9 HERNANDEZ | 25 CACERES |
| 10 PEREDA | 26-28 HERNANDEZ |
| 11 IBARROLA | 29 PEREZ |
| 12-14 YARZA | 30 PEREDA |
| 15 FERNANDEZ | 31 CACERES |
| 16 IBARROLA | |

Las guardias de 2024 pueden estar sujetas a ligeros cambios/ 2024ko guardiek aldaketa txikiak izan ditzakete

GARRAIOA · TRANSPORTE

AUTOBUSA AUTOBÚS

IRTEERA: Artziniega IRTEERA: Okondo
SALIDA: Artziniega SALIDA: Okondo

IBILBIDEA RUTA: Artziniega, Lanteno, Menagarai
Arespalditza, Murga, Izoria, Amurrio, Laudio,
Okondo.

ARTZINIEGA-OKONDO OKONDO-ARTZINIEGA

| | |
|--|--|
| Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes | Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes |
| 6:30 15:20 | 07:00 16:20 |
| 7:45 16:15 | 08:35 17:10 |
| 9:35 18:50 | 10:35 17:50 |
| 11:35 20:50 | 13:25 19:50 |
| 14:25 | 15:20 21:50 |

| | |
|--|--|
| Asteburu eta jaiegunetan Fin de semana y festivos | Asteburu eta jaiegunetan Fin de semana y festivos |
| 9:20 | 8:20 |
| 14:20 | 13:20 |
| 16:25 | 15:45 |
| 21:25 | 20:25 |

TRENA TREN

URDUÑA-BILBO (LUIAONDO, RENFE)

| | |
|--|--|
| Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes | Asteburu eta jaiegunetan Fin de semana y festivos |
| 8:13 | 10:33 |
| 10:53 | 13:33 |
| 15:43 | 16:33 |
| 16:53 | 18:38 |
| 18:33 | 21:38 |

BILBO-URDUÑA (LUIAONDO, RENFE)

| | |
|--|--|
| Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes | Asteburu eta jaiegunetan Fin de semana y festivos |
| 8:18 | 11:38 |
| 10:18 | 13:38 |
| 13:28 | 18:08 |
| 18:20 | 20:38 |
| 19:58 | 21:38 |

*Trenen ordutegi guztiak
* Todos los horarios de trenes www.renfe.com

TELEFONOAK · TELÉFONOS

AMBULATORIOA.....945 025 009
AMBULATORIO LUIAONDO....945 393 864
AMBULATORIO RESPALDIZA...945 399 332

UDALETXEA.....945 399 013
AYUNTAMIENTO

AIARAKO KUADRILA.....945 399 122
CUADRILLA DE AYALA
AIARATUR.....945 034 930

AIARAKO SUHILTAILEAK....94 672 6565
BOMBEROS DE AYALA
ETXAURREN IKASTOLA.....945 399 287

ERTZAINZA(LAUDIO)94 406 3860

GENERO INDARKERIAREN
BIKTIMEN ARRETA
ZERBITZUA.....900 180 414

GALDAKAO OSPITALEA.....944 007 000
HOSPITAL DE GALDAKAO

RENFE.....902 320 320
RENFE

LA UNIÓN AUTOBUSAK.....945 264 626
AUTOBUSES LA UNIÓN

BIZKAIBUS.....902 222 265
BIZKAIBUS

TAXI.....678 351 921
TAXI A DEMANDA.....945 890 393

ARABAKO FORU ALDUNDIA...945 181818
DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA

SARAUBE ALDIZKARIA.....722 134 322
REVISTA SARAUBE



Whatsapp municipal

Aiarako egunerokotasunaren berri izateko, 290 pertsonak osatzen duten WhatsApp taldera batu: 615 788 146.

Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.



San Prudentzio jaietako kartel lehiaketako irabazleak

Ganadoras del concurso de carteles de fiestas de San Prudencio

14 urtetik gorako kategoria:
Eneritz Ortiz Angulo.
Izenburua: *Jaiak altxatzera goaz*

10-14 urte bitarteko kategoria:
Amaia Iglesias de la Torre.
Izenburua: *Aiarako Jaiak imajinaezinak dira, bizi behar dira.*

10 urtetik beherako kategoria:
Aira Fuentes.



SAN PRUDENTZIO JAIK 2024 egitaraua



APIRILAK 26, OSTIRALA

- 18:45** Pregoia Aiara Dantza Taldearen eskutik.
- 19:00** Txupinazoa. Aitor Aspuruk botako du.
- 19:30** Aiara Dantza Taldearen emanaldia.
- 20:30** Txaranga kalejira.
- 23:00** Akerbeltz taldea. Jarraian DJ Markelin.

APIRILAK 27, LARUNBATA

- 11:00** Jesús Isasi Memoriala
Txirindularitza-lasterketa. Kadete kategoría.
- 11:30-14:00** Haurrentzako parkea.
- 12:00** Haurrentzako tailerra.
- 12:00-13:00** Bola-jaurtiketa Kexaan.
- 13:00** San Prudentzioren omenezko Meza.
Abesbatzak abestua.
- 14:30** Nagusien bazkaria Etxaurren Ikastolan,
musikaz alaitua.
- 16:00-18:00** Haurrentzako parkea.
- 18:00-20:00** Bola-jaurtiketa Kexaan.
- 19:00** Xaibor diskofesta.
- 23:00** Kaos Etiliko taldearen kontzertua.
- 01:00** DJ Aiara.

APIRILAK 28, IGANDEA

- 10:00** Xake txapelketa.
- 10:30** Txistulari-kalejira.
- 11:00** Eskualdeko produktuen azoka.
- 12:00** Danborrada Etxaurren Ikastolaren eskutik.
- 12:30** Zapiak margotzeko tailerra.
- 12:30** Emakumeen herri kirolen erakustaldia.
- 17:00** Artzikirol erakustaldia.
- 19:00** Patxi Perez.
- 20:00** Herri odolkia.
- 20:30** Castanha e Vinovel musika taldea.

VIERNES, 26 DE ABRIL

- 18:45** Pregón a cargo de Aiara Dantza Taldea.
- 19:00** Chupinazo de la mano de Aitor Aspuru.
- 19:30** Actuación de Aiara Dantza Taldea.
- 20:30** Pasacalles charanga.
- 23:00** Akerbeltz y a continuación DJ Markelin.

SÁBADO, 27 DE ABRIL

- 11:00** Memorial Jesús Isasi, carrera
ciclista de cadetes.
- 11:30-14:00** Parque infantil.
- 12:00** Taller infantil.
- 12:00-13:00** Tirada de bolos en Quejana.
- 13:00** Misa en honor a San Prudencio,
cantada por la coral.
- 14:30** Comida para mayores en Etxaurren
Ikastola, amenizada con música.
- 16:00-18:00** Parque infantil.
- 18:00-20:00** Tirada de bolos en Quejana.
- 19:00** Xaibor diskofesta.
- 23:00** Concierto de Kaos Etiliko.
- 01:00** DJ Aiara.

DOMINGO, 28 DE ABRIL

- 10:00** Campeonato de ajedrez.
- 10:30** Pasacalles con txistularis.
- 11:00** Mercado de productos de la comarca.
- 12:00** Tamborrada de la mano de Etxaurren Ikastola.
- 12:30** Taller para pintar pañuelos.
- 12:30** Herri kirolak con deportistas femeninas.
- 17:00** Exhibición de Artzikirol.
- 19:00** Patxi Perez.
- 20:00** Morcillada popular.
- 20:30** Concierto de Castanha e Vinovel.

Eraso matxistarik gabeko jaiak
Fiestas sin agresiones machistas